



GANBARA — SORMEN-TAILERRA

Orioko haur eta gaztetxoek eskaintza zabala dute eskolaz kanpoko orduetan kirol egiteko: arrauna, futbola, eskubaloia, pilota, softbola, atletismoa... Musika landu nahi duenak ere hortxe du Danbolin musika- eta dantza-eskola eta, horrez gain, ekimen pribatuak ere eskaintzen ditu zenbait aukera, akademikoagoak, atzerriko hizkuntzak ikasteko, klase partikularrak hartzeko...

Udalak eta bi ikastetxeek uste dute, ordea, eskolaz kanpoko eskaintza horretan sormenarekin lotutako jarduerak falta direla, eta horiek indartzeko premia ikusten dute.

Hutsune hori betetzeko, GANBARA SORMEN-TAILERRA izeneko ekimena bultzatuko du Udalak datorren ikasturtean, Zorione Mendez Martin artista oriotarrarekin batera eta Zaragueta Herri Eskola eta Orioko Herri Ikastola bidelagun dituela.

Bi tailer-mota izango dira:

- ARTE PLASTIKOAK: marrazketa, pintura, eskultura, eskulanak, serigrafia...
- GORPUTZ-ADIERAZPENA: antzerkia eta dantza.

Ikasleek aukera izango dute tailer batean ala bietan izena emateko.

Egutegia

2023ko urritik 2024ko ekainera eskainiko zaizkie eskolak LHko eta DBHko haur eta gaztetxoei. Urritik otsailera, saioak Orioko Herri Ikastolan egingo dira, eta martxotik ekainera, Zaragueta Herri Eskolan. Horrela, ikasle guztiek bi zentroak ezagutzeko aukera izango dute.

Taldeak

6 eta 12 lagun arteko taldeak egingo dira, horrela antolatuta:



Arte plastikoak

LH 1 eta 2 = A taldea
LH 3 eta 4 = B taldea
LH 5 eta 6 = C taldea
DBH 1 eta 2 = D taldea
DBH 3 eta 4 = E taldea

Gorputz-adierazpena

LH eta DBH (denak nahasturik) = A + B + C + D + E = Z taldea

Ordutegiak

Saioak ordu eta erdikoak izango dira, eta hauek izango dira ordutegiak:

Astlehena 17:00-18:30 (A taldea) // 19:00-20:30 (E taldea)
Asteartea 17:00-18:30 (B taldea)
Asteazkena 16:30-18:00 (C taldea) // 18:30-20:00 (Z taldea)
Osteguna 17:00-18:30 (Z taldea) // 19:00-20:30 (D taldea)

Prezioak

Ordainketak hiru hilabetetik behin egingo dira, urrian, urtarrilean eta apirilean. Hauek dira prezioak, materialak barne:

1. URRIA-ABENDUA 220€ (aukera bat) / 400€ (bi aukerak)
2. URTARRILA-MARTXOA 220€ (aukera bat) / 400€ (bi aukerak)
3. APIRILA-EKAINA 220€ (aukera bat) / 400€ (bi aukerak)

Udalak laguntza-sistema bat ezarriko du egoera zaugarrian daudelako ordaindu ezin dutenentzat.

Izen-ematea

Izen-ematea zabalik dago **irailaren 15era arte**.

Horretarako edo informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Zorione Mendezekin, ganbara.sormentailerra@gmail.com helbidera idatziz edota 652 702 237 telefonora deituz.